

Agora, ezagutzaren plaza

Hitzaldi-solasaldia Amaia Bacigalupe irakaslearekin

Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen al ditu medikuntzak emakumeak eta gizonak?

Iurretan, 2026ko otsailaren 3an. Gizakia subjektu neutro eta unibertsal bezala kokatzen duen munduaren ikuspegi bat da androzentrismoa. Medikuntzaren eta osasunaren esparruan, ikuspegi honek, historian zehar, hutsune batzuk sortu ditu emakumeen osasunari eta genero-alborapenei buruzko ikerketan, gaur egungo praktika klinikoan oraindik ere badirauteak.

Medikuntzan genero-ikuspegia kontuan ez izateak akatsak eta atzerapenak eragin ditzake gaixorik dauden emakumeen diagnostikoa egiterakoan. Emakumeen infartuaren diagnostiko berantiarak –sintomak beti ez datozelako bat "ohikotzat" jotzen diren sintomekin, sintomatologia maskulintatik abiatuta definituta daudelako– androzentrismoak osasun-arretan dituen ondorioen norainokoa erakusten du.

Osasun arretan dauden genero-desparekotasunei buruz hausnartzeko, Amaia Bacigalupe Osasun Publikoko doktore eta EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza saileko irakasleak *"Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen al ditu medikuntzak emakumeak eta gizonak?"* hitzaldia eskainiko du datorren asteartean, otsailak 10, Iurretako Udal Liburutegian.

Bere hitzaldian, Bacigalupek emakumeen eta gizonen arteko osasun-desparekotasunak aztertuko ditu, eta baita generoak eredu horietan betetzen duen papera, osasun mentalari arreta berezia eskainiz. Horretarako, medikuntzaren erro androzentrikoak eta horrek dituen ondorio batzuk aztertuko ditu, hala nola ikerketan emakumeen osasunari ematen zaion arreta eskasa, azterketa espezifikoaren falta eta genero-alborapenak egungo praktika klinikoan oraindik ere egotea.

Hitzaldi-solasaldia [Euskal Herriko Unibertsitateko Kultura Zientifikoko Katedra](#) eta [Iurretako Udal Liburutegia](#) bultzatutako *Agora, ezagutzaren plaza* hitzaldi-zikloan kokatzen da. Liburutegian bertan izango da, **otsailaren 10ean, asteartea, 18:30ean**.

Ekitaldia euskaraz egingo da eta sarrera libre eta doakoa izango da, baina aldeztu aurretik izena eman behar da biblioteka@iurreta.eus helbidera e-mail bat bidaliz edo 946 812 726 telefonora deituz.

Hizlaria

[Amaia Bacigalupe](#) Osasun Publikoan doktorea da (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa). Gaur egun, EHUko Gizarte eta Komunikazioa Zientzien Fakultateko Soziologia eta Gizarte Langintza saileko zuzendaria eta irakasle titularra da. Honen



aurretik, Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko Berrikuntza eta Ikerketa Zerbitzuan, eta Bizkaiko Lehen Mailako Arreta ikerketa-unitatean egin zuen lan. Gainera, EHUKo [OPIK](#) Osasunaren Gizarte Determinatzaile eta Aldaketa Demografikoari buruzko ikerketa taldeko kidea da.

Bere ikerketa-eremua geruzapenak eta desberdintasun sozialak osasunean zein osasun-arretan duten eragina aztertzea da, kasu eginez bereziki osasun-arloko genero-desparekotasunei eta osasun-arretako genero-alborapenei.

Hitzaldi-solasaldia: "Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen al ditu medikuntzak emakumeak eta gizonak?"

Hizlaria: Amaia Bacigalupe, Osasun Publikoan doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte Langintza saileko irakaslea.

Data: 2026ko otsailak 10, asteartea.

Ordua: 18:30

Hizkuntza: euskara.

Lekua: Iurretako Udal Liburutegia (Bidebarrieta, 4 – Iurreta). Lehen solairua.



Ágora, plaza del conocimiento

Charla-coloquio con la profesora Amaia Bacigalupe

Salud y género. ¿Trata la medicina igual a mujeres y hombres?

Iurreta, 3 de febrero de 2026. El androcentrismo es una visión del mundo que sitúa al hombre como sujeto neutro y universal. En el ámbito de la medicina y la salud, esta perspectiva ha generado, a lo largo de la historia, una serie de lagunas en la investigación sobre la salud femenina y sesgos de género que aún persisten en la práctica clínica actual.

La falta de perspectiva de género en medicina puede provocar errores y retrasos en el diagnóstico de las pacientes. El diagnóstico tardío del [infarto en mujeres](#) -debido a que sus síntomas no siempre coinciden con los considerados "típicos", definidos a partir de la sintomatología masculina- ejemplifica el alcance de las consecuencias del androcentrismo en la atención sanitaria.

Para reflexionar sobre las desigualdades de género en la atención sanitaria, **Amaia Bacigalupe**, doctora en Salud Pública y profesora del *departamento* de Sociología y Trabajo Social de la EHU, ofrecerá la charla-coloquio "*Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen al ditu medikuntzak emakumeak eta gizonak?*" (Salud y género. ¿Trata la medicina igual a mujeres y hombres?) el próximo **martes 10 de febrero en la Biblioteca Municipal de Iurreta**.

Durante su intervención, Bacigalupe analizará las desigualdades en salud entre mujeres y hombres y el papel que desempeña el género en estos patrones, con especial atención a la salud mental. Para ello, examinará las raíces androcéntricas de la medicina y algunas de sus consecuencias como la escasa atención a la salud femenina en la investigación, la ausencia de estudios específicos y la persistencia de sesgos de género en la práctica clínica actual.

La charla-coloquio se enmarca dentro del ciclo de conferencias *Agora, ezagutzaren plaza* (Ágora, plaza del conocimiento) impulsadas por la [Cátedra de Cultura Científica de la Universidad del País Vasco](#) y la [Biblioteca Municipal de Iurreta](#). La actividad, que se impartirá en euskera, tendrá lugar el **martes, 10 de febrero a las 18:30 horas** en la biblioteca.

La actividad, que se impartirá en euskera, es de entrada libre y gratuita, pero se requiere inscripción previa enviando un mail a la dirección: biblioteka@iurreta.eus o llamando al teléfono 946 812 726.

La conferenciante

[Amaia Bacigalupe](#) es doctora en Salud Pública (Universidad Autónoma de Barcelona). En la actualidad es directora y profesora titular del departamento de Sociología y Trabajo Social de la Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación de la Universidad del País Vasco. Con anterioridad, ha trabajado en el Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y en la Unidad de Investigación de Atención



Kultura
Zientifikoko
Katedra
Cátedra
Cultura
Científica



Primaria de Bizkaia (Osakidetza). Además, forma parte del grupo de investigación en Determinantes Sociales de la Salud y Cambio Demográfico ([OPIK](#)) de la EHU.

Su ámbito de estudio es el análisis de la influencia de la estratificación y la desigualdad social en la salud y en la atención sanitaria, con especial foco sobre las desigualdades de género en la salud y los sesgos de género en la atención sanitaria.

Charla-coloquio: Osasuna eta generoa. Berdin tratatzen al ditu medikuntzak emakumeak eta gizonak?" (Salud y género. ¿Trata la medicina igual a mujeres y hombres?)

Conferenciante: Amaia Bacigalupe, doctora en Salud Pública y profesora titular en el departamento de Sociología y Trabajo Social de la Universidad del País Vasco.

Fecha: martes, 10 de febrero de 2026.

Hora: 18:30

Idioma: euskera.

Lugar: Biblioteca Municipal de Iurreta (Bidebarrieta, 4 – Iurreta). Primera planta.